


# EUSKAL SINDIKATUA

*langileekin, erantzuteko prest!*



**Adolfo Muñoz "Txiki"**
idazkari nagusia

Laster hasiko da berriro hauteskunde sindikalen kanpaina enpresa eta sektore askotan. Hauteskunde horien bidez hautatuko ditugu hurrengo urteetan gure izenean ariko diren ordezkariak.

Gutxienez sei langile dituzten enpresa eta lantoki guztietan ordezkari sindikalak hautatu ahal izango ditugu. Eskubidea da; beraz, ez dago zertan inoren baimenik eskatu. Eskubidea ez ezik, beharrizana ere bada langileentzat. Izan ere, hautatuko ditugun ordezkariak funtsezko giltzarriak izango dira gure eskariak bideratzeko, informazioa jasotzeko, lan-baldintzak negoziatzeko eta beste hainbat gai aztertzeko (egutegia, oporrak, kontratazioa...).

## ERANTZUTEKO PREST

Langileentzako bereziki erasokorra den abagune honetan, asko dugu jokoan gure lan baldintzak defendatu eta hobetzeko. Onarturiko doikuntzak, lan merkatua eta negoziazio kolektiboaren erreformak eta pentsioenak ere eraso egiten diete gure eskubideei, eta patronalaren pribilejiozko posizioaren alde jotzen dute. ELA buru belarri ari da enpresa eta sektoretako prekarietatea ekiditeko lanean; baita kaleratzeen aurka eta lan baldintzetan ezarri nahi dizkiguten xantaien aurrean ere. Honekin batera, gogor astintzen ari gara gobernuen politika ekonomiko, nahiz fiskala eta sozialak aldarazteko, herritarren benetako beharrei erantzun diezaieten.

Guzti horregatik, ordezkari egokiak hautatzea erabakigarria izango da hauek bezalako gaiak mahai gainean ditugunean, are eta gehiago gauden abagune ekonomikoan. Erasoei erantzuteko borondatea eta lan eta bizi baldintzak duinen alde borrokatzea ELAren ezaugarriak dira. Egoera horiek gertatzen direnerako garrantzi handikoa da ordezkariak ELA bezalako sindikatu sendo eta saiatu baten aholkularitza eta sostengua izatea.

Alde horretatik, ELAren hautagai-zerrendak berme osoa ematen du. Lokalen sare zabala, baliabide tekniko ugari, militante sindikal arduratsuak... atal horiek guztiek gure egitura osatzen dute, helburu bakar bat hobeto lortzearren: langileen arazoak konpontzea, laguntza hurbila eta eraginkorra emanez, enpresa, sektore, kidego eta kategoria bakoitzean.

Hori da gure organizazioaren lehentasuna eta horregatik ELAk aurpegia ematen du enpresan eta enpresaz kanpo ere, baliabide ezberdinekin:

## INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

ELAk etengabeko harremanak ditu ordezkariekin, berriak gertatu ahala jakitun jartzeko —hitzarmenen negoziazioak, lege-arau berriak, erreformak, gizarte-egoera, lanekoa, politikoa—; eta gainera, gori-gori dauden gaien inguruko prestakuntza eskaintzeko.

## AHOLKULARITZA

ELA sindikatu hurbila da, langileen ondo-ondoan baitago beti. Lan-baldintzen negoziazioan, krisi edo birmoldaketa-egoeretan eta abarretan laguntza osoa ematen die ordezkariei, zalantzak argitzen, aholkuak ematen eta sostengua eskaintzen.

## INDARRA ETA BABESA

ELA hitzeko sindikatua da, eta ganoraz lan egiten du euskal langileen eskubideen alde. Dituen 110.000 afiliatuei esker, oso ordezkaritza zabala du. Indarra da ELAren izaeraren ezaugarria, eta indartsu ematen du aurpegia langileekin batera, lan-baldintzak eta bizimodua hobetzeko, gehiegikeriei erantzuteko, eta azken batean, bizimodu duina langileentzat lortzeko.

Helburu horri begira, datozen hauteskundetan ELAren hautagai-zerrendetan aurkeztera gonbidatzen zaituztegu eta, bide batez, ELAri bozka ematera eta baita bozkatzera ere ganoraz, gizalegez eta zintzotasunez. Zure aukera ELA.

Adeitasunez,

**Adolfo Muñoz "Txiki"**, Idazkari Nagusia.






# EUSKAL SINDIKATUA

## *fuerza y compromiso*



**Adolfo Muñoz "Txiki"**
Secretario General

De nuevo abordamos en muchas empresas y sectores el proceso de elecciones sindicales para elegir a las personas que nos van a representar los próximos años.

En todas las empresas y centros de trabajo que cuenten al menos con seis trabajadores o trabajadoras podemos elegir representantes sindicales. Es un derecho, y no depende de la autorización de nadie. Para la clase trabajadora también es una necesidad, ya que las personas que elijamos serán claves para canalizar nuestras reivindicaciones, recibir información, negociar las condiciones de trabajo o hacer frente a cuestiones como el calendario, las vacaciones, la contratación....

## RESPONDEMOS

En esta coyuntura, especialmente agresiva contra la clase trabajadora, nos jugamos mucho para defender y mejorar nuestras condiciones de trabajo. Los ajustes aprobados, las reforma laboral y de negociación colectiva, así como la reforma de pensiones son una ataque contra nuestros derechos y mantienen la posición de privilegio de la patronal. ELA está dando la cara en empresas y sectores para combatir la enorme precariedad, el recurso fácil al despido y el chantaje a las condiciones de trabajo que nos quieren imponer. También ELA está peleando por un cambio de las políticas económicas, fiscales y sociales con el fin de que se atiendan las necesidades de la gente.

Así pues, la elección de las personas que nos van a representar es decisiva en relación con muchas materias, máxime en la actual coyuntura económica. La voluntad de responder a los ataques y luchar por unas condiciones de trabajo y de vida dignas es seña de identidad de la militancia de ELA. Resulta, pues, determinante que en esta situación las personas elegidas tengan el respaldo y asesoramiento de un sindicato fuerte y comprometido como ELA.

Por ello, la candidatura de ELA supone una garantía. Su amplia red de locales, de medios técnicos y de personas militantes dedicadas a la actividad sindical, no pretenden sino buscar la respuesta más cercana y eficaz a los problemas de trabajadores y trabajadoras en cada empresa, en cada sector, en cada colectivo o en cada categoría.

Esa es la prioridad de nuestra organización y por eso ELA da la cara tanto en la empresa como fuera de ella por medio de:

## INFORMACIÓN Y FORMACIÓN

ELA mantiene contacto permanente con las personas representantes para informarles de la negociación de los convenios, normativas legales, reformas, coyuntura socio-laboral y política, y también para formarnos ante las cuestiones que nos afectan.

## ASESORAMIENTO

ELA es un sindicato cercano a trabajadores y trabajadoras, cercano para ayudar a delegados y delegadas, para aclarar sus dudas, resolver consultas, apoyar y orientar en la negociación de las condiciones de trabajo, asesorar en cualquier situación de crisis o reestructuración...

## FUERZA Y RESPALDO

ELA es un sindicato coherente y que trabaja con rigor para defender y ampliar los derechos de la clase trabajadora vasca. Cuenta con 110.000 personas afiliadas, lo que le confiere una gran fuerza representativa. Esa fuerza es signo de identidad de ELA para dar la cara con los trabajadores y trabajadoras, para pelear por mejorar nuestras condiciones de trabajo y de vida, para responder a los abusos, y en definitiva, para lograr que trabajadores y trabajadoras vivamos en condiciones de dignidad.

En ese horizonte, os invitamos a que en las próximas elecciones sindicales os presentéis en las candidaturas de ELA y a votarlas por rigor, coherencia y honestidad. ELA es tu opción.

Afectuosamente,

**Adolfo Muñoz "Txiki"**, Secretario General.

